

Genero-indarkeriaren erakundetzea

Bidasoaldeko alardeetan

Margaret Bullen

Euskal Herriko Unibertsitatea
maggie.bullen@ehu.es

Xabier Kerexeta

Kalegoi Kultur Zerbitzuak

Hitz gakoak: genero indarkeria, Alardeak, genero sistemak, festak, Bidasoaldea.

Laburpena: Irungo Alardeak (ekainak 30) eta Hondarribikoak (irailak, 8) gatazka-iturri jarraitzen dute, emakumeen eta gizonen artean berdintasunezko partaidetzaren aldeko jarrerak eta kontrakoak aurrez aurre daudelako. 2002az geroztik bi ekitaldi bereiz, bata parekide, bestea baztertzaille, gauzatzearen instituzionaltzearekin, gatazka egonkortu eta berdinzaleen aurkako adierazpen bortitzak gutxiago dira, eta ez hain larriak. 2005ko Berdintasun Legea, argi eta garbi eta salbuespenik gabe ekitaldi baztertzailleak debekatzeko duena, ez da betetzen. Aitzitik, baztertzailleek udalen babesari eta, hein handi batean, Herrizaingo Sailarena jasotzen dute. Alarde parekideek, ordea, udaletatik batera laguntza ez, eta Herrizaingo Sailetik, baldintzapeko berme eskasak. Indarkeria, edo haren mehatxua, nonahi agertzen da berdinzaleen aurka. Artilukuak argudiatzen du Alardeetako indarkeria, espazio publikoa okupatzeko tenorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurka agertu ohi dena, gure gizartean oraindik orain dagoen genero-sistema asimetrikoen ondoriozko indarkeria orokorraren sintoma dela.

Sarrera

1996an Irungo eta Hondarribiko emakume batzuek Alardean berdintasunez parte hartzeko proposamena plazaratu orduko, sekulako erantzun bortitza jasan behar izan zuten. Lehendabiziko urteetan indarkeria izan zen alarde haien ezaugarri gailena, edo hala adierazten zuten, beste ezeren gainetik, bertako eta kanpoko komunikabideek eta hala jaso genuen gure lehenengo ikerketaren emaitzak argitaratu genuenean (Bullen eta Egido, 2003). Areago, Bullenek eta Diezek 2002an halaxe jorratu zuten gaia, indarkeriazko fenomenotzat harturik. Harrez

Ankulegi 17, 2013, 11-28

Fecha de recepción: 30-IV-2013 / Fecha de aceptación: 11-XI-2013

ISSN: 1138-347-X © Ankulegi, 2013

geroztiko hamar urte honetan, komunikabideei eta diskurtso ofizialei erreparatuz gero behintzat, arazoa “bideratua” dagoela dirudi, emakumeek nola edo hala parte hartu eta haien aurkako adierazpen bortitzenak desagertu edo hein handi batean apaldu direlakoan.

Indarkeria apaldu beharrean egonkortu egin dela frogatzea da komunikazio honen helburua. Hartara, lehenik eta behin, indarkeria eta indarkeriaren adierazpenak bereiziko dira, askotan lehena bigarrenetara mugatzen baitute komunikabideek, baita instituzioek berek ere. Bereizketa hori egiteko, indarkeria eta genero indarkeria aipatzeko erabiltzen diren terminologia eta kontzeptuak kontuan hartu beharko ditugu. Izan ere, maiz “normaltasuna” deitutako lasaitasunak etengabeko mehatxu bat baitu oinarri. Aipatzen ez den baina egon dagoen mehatxua saihestearren, aktore guztiek beren jokabideak egokitu dituzte, eta jokabideok aztertzea da asmoa. Horregatik, genero sistemen kontzeptuarekin hasiko gara, genero indarkeria sistema horretan kokatu ahal izateko. Marko teoriko horretatik abiatuta aztertuko ditugu, batetik, Alardean indarkeriaren normalizazio prozesua, eta bestetik, erakundetzea.

Azken kontzeptu hau instituzionalismo feminista delakoak egiten duen moduan erabiliko dugu hurrengo orrietan; alegia, azalduko dugu nola genero-arauek eragiten duten instituzioen baitan eta nola instituzio horiexek eraikitzen eta iraunarazten dituzten botere-dinamikak.

Genero sistemak

Hasteko, beraz, normalizazio prozesu hori aztertzeko genero sisteman kokatu beharko

dugu, lan hori sistemak ederki egiten baitu¹. Hau da, kulturalki eraikita dagoena “naturala” eta “normala” bihurtzen du sistemak. Hots, esaten dugunean generoa eraketa soziala dela, kontzeptu bat dela diogu: gizarte edo kultur sistema jakin batean asmatu edo eraiki den kontzeptua. Bestela esanda, “neska da” edo “mutila da” esaten dugunean, ez gara errealitatea deskribatzen ari, ez gara objektu soila izendatzen ari, kontzeptu eta ideia multzo bat baizik; eta, aldi berean, erreproduzitu egiten dugu errealitate hori. Ikuspegi honetatik, konbentzio sozial eraginkorra da hitza, mundua ikusteko modu jakin bat birsortzen duena. Horregatik, generoaren ezaugarriak jendearen sinesmenen arabera dira, baina tokiko kultur sistemaren jokamolde jakinak benetako bakarrak balira bezala gorpuzten dituzte taldekideek.

Praktikan, gizon eta emakume izateko moduen naturalizazioa da ezberdintasunei eusteko erarik eraginkorrena, “naturalak” balira legez onartuta. Horren harian esaten dugu prozesu dinamiko, historiko eta aldakorra dela genero kontzeptua. Eta prozesu horretan, gizarte eta garai jakin bakoitzean zehazten da gizon eta emakume izatea. Definizio horiek ezaugarri eta betebeharrak jakinetan oinarritzen dira; eta norbanakoek beren eginenez eta onartuz barneratzen dituzte. Gainera, genero terminoaren abiapuntua kategoria biofisiologikoetan egon arren, giza jokaera batzuk argitu eta indartzen ditu –beste zenbait ezkutatu– betiere botere harreman jakinen egitura hierarkikoak mugatuta.

Esan dugunez, generoa eraketa soziala da, baina aldi berean gizartea eraikitzen du. Harreman sozialen bidez definitzen da generoa;

¹ Marko teoriko hau Bullen eta Hernandezen EHuko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrako *Antropologia Feminista* testuan oinarritzen da.

izan ere, pertsonen arteko harremanak gizarte egituraren oso zati garrantzitsua dira. Harreman horietan oinarritzen da gizartearen antolaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala. Hori dela eta, ordena sozialaren funtsezko osagai bat da genero-sistema.

Gizartea egitura bat dela ulertzeaz gain, komeni da jabetzea “kultura” ere sistema bat dela. Sistema guztiak bezala, dinamikoa da, aldakorra eta subjektuen agindupekoa. “Kultura”, alegia, ez da existitzen agente sozialetatik at; pertsonak eta taldeak –bakoitzak bere botere indarren arabera– kultura sortu, aldatu eta birsortzen dute. Horregatik, “kultur sistema” terminoa hobesten dugu, “kultura” hitza baino. Sistema horrek osagai zerrenda luzea du. Gaietik azalduz, osagai hauek dira kultur sistemen ardatz: gizarte antolamendua (senidetan sistemak, familia osatzea); antolamendu politikoa (gobernu sistemak, legeak eta zuzenbideko gaiak) eta antolamendu ekonomikoa (ekoizpen eta banaketa sistemak); irudikapen sistemak (hizkuntzak, sistema sinbolikoak), kultur materiala eta materiala ez dena (arte objektuak, antzezlanak, musika, tradizioak, errituak, jaiak), balore sistemak eta sinesmenak, besteak beste.

Gizon edo emakume izatearen esanahia eta horri lotutako logika eta praktikak ardatz horiek guztiek zeharkatzen dituzte. Izan ere, genero sistema kultur sisteman sartuta dago, eta gure testuingurua da, pentsamendua soziala eta publikoa delako eta gure egintzei zentzua ematen dielako. Horregatik, bizitza publikoa eta pertsonala arautzen dituen pentsaera sozialaren berri ematen digu kultur sistemak. Baina legitimitatea talde sozialek ematen diote sistemari –edo zalantzan jartzen dute– doktrina formal eta ez formal guztiek agintzen digutena betetzearekin edo ez betetzearekin batera gorpuzten edo ahultzen dugulako.

Egun, “genero sistemak” pluralean erabiltzen dugu parte hartzen duten faktoreen ugaria eta konplexuari hobeto heltzen zaio-lakoan, aintzat hartuz gero “egoera historiko zehatzetan zehar tokian tokiko eta mundu osoko indarren artean, bertako eta kanpoko esanahien artean, gizarte egituraren eta pertsonen ekinbidearen artean gertatutako elkarrekiko eragineen ondorioz sozialki eraiki diren desberdintasunak” (del Valle (koord.) 2002: 21). Genero sistemen nozioa kontzeptu estrukturala da, Robert Connellek 1987an agerrarazia, emakumeen eta gizonen kategoria estatiko eta ahistorikoak ez ezik inplizituki desberdintasun biologikoei heltzeko joera ere kritikatzeko baitzituen. Beraz, estrukturararen kontzeptuarekin agerrarazi nahi duena sare konplexu bat da, zeinen bidez baldintza materialek eta kontzeptualizazio sinbolikoek elkarri eragiten baitiote, bai norbanakoaren mailan (mikro), bai gizartekoarenean (ertain), bai globalarenean (makro), pertsonen lan, botere eta cathexis edo unibertso emozionalaren harremanari dagokionez. Connellek dioenez, pertsonen arteko botere-harremanak gizarte instituzioek eraginda daude: “Gizarte estrukturararen kontzeptuak gizartea antolatzeko era zehatz baten baitan dautzan mugak adierazten ditu. Kasu gehienetan, ordea, praktika sozialen gaineko mugek botereen elkarrekiko ekinbide konplexuan dihardute, gizarte instituzio zenbaiten bidez, hain zuzen” (ibid.: 92). Instituzio hauek formalak zein informalak dira; hala nola, familia, talde etnikoa, erlijioa, eskola, lana... eta bakoitza bere legeek edo arauak zuzendua da, eta, gehiago edo gutxiago, gobernu organoetan adierazitako sistema politiko eta juridikoen bidez balioak edo sinesmenak ezartzen dizkiote norbanakoari.

Sistemen ideiarekin bitartez antzematen da genero-harremanak beti botere-harre-



Ainhoa Ruiz de Arbulo, Alarde mistoaren jenerala, Irungo Kale Nagusian. 2012ko San Martzial egunean. Egilea: James Bullen.

manak direla, diferentziak ez baina hierarkiak direla, hain zuzen baliabide materialak eskuratzeko bideak eta boterea gauzatzeko aukerak denentzat berberak ez izatearen ondorioz, betiere desberdintasun sexualen eta generozkoen eraiketa- eta naturaltze-bide konplexuen gainean oinarrituta. Gizon boteretsuen eta emakume menperatuen jatorrizko eskema dikotomizatutik aldendu ahala, ekile sozial desberdinek dituzten kapital sinbolikoak ikus daitezke eta, hala, jokoan dauden gainerako aldagaiak azter daitezke, bai eta emakume eta gizon izateko dauden eredu desberdinak ere.

Genero indarkeria

Alardeetan sortutako arazoak sakoneko analisi bat eskatzen du, berdintasunaren bidean aurkitzen den oztopo honen azpian dautzan kausak argitu ahal izateko. Gure aburuz, –indarkeria bere agerpen guztietan barne– genero sistemetan dago. Horregatik, gure zeregina da erakustea alde batetik Alardeetan geratzen dena genero indarkeria dela, eta bestetik, genero indarkeria ez bakarrik fisikoa nahiz psikologikoa dela, baizik eta sinbolikoa eta estrukturala. Bullen eta Diezek Bartzelonan 2002ko FAAEEko antropologia kongresuan aurkeztutako lanaren izenburuak berak –“Violencias y culturas androcéntricas”– Bidasoaldeko Alardeetan

agertzen den fenomeno indarkeria frogatzen duenez gero, komunikazio honek ez du bide hori jorratuko, nahiz eta, lekukotzan agertuko den bezala, protagonistek eta beziki antagonistek, bai eta hein handi batean erakundeek ere, alardeena indarkeria-arazoa denik ukatzen duten.

Era berean, pertsonarteko indarkeria gizarte ikuspegitik aztertuz gero (Bullen eta Farapi, 2011), fenomenoaz dugun ulermena zabaldu ahal dugu, indarkeria ez unean uneko ekintza gisa, ez salbuespen gisa baizik eta egunerokotasunaren, "normaltasunaren" osagai gisa. Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, genero sistemarekin loturiko oinarrizko indarkeriatzat hartuz gero, egunerokoan oso presente dagoela ikusten dugu, eta era berean aitortu egiten dugu horren adierazpenetako batzuk puntualagoak izan daitezkeela. Alardeena ez da arazo bat, sintoma bat baizik. Horregatik, ikuspegi zabalak bezain sakona exijitzen du.

Egitura sakonetara iritsi, genero sistemen oinarriak inarrosi eta emakumeen aurka behin eta berriro gauzatzen diren astakeriak errotik erauzteko garrantzia eta premia dira komunikazio honen abiaburu. Indarkeria, bere adierazpen gogorrean, izugarriean, errealitate askoz hedatuago, egunerokoago baten izozmendiaren tontorra da, mundu guztia jotzen duelarik, ez bakarrik biktimak, baita erasotzaileak ere. Indarkeria estruktural eta sinbolikoa isilagoa eta hautemateko zailagoa da, eguneroko bizitzan txertatua delako, gizonen eta emakumeen arteko ohiko harremanetan, heziketa eta sozializazio bide desberdinetatik jasotzen ditugun mezuetan eta gure imaginarioa betetzen duten irudietan.

Haurtzarotik txertatu egiten digute buruan emakumea edo gizona izateko modu bat eta mundua garbiki izaki femeninoetan eta maskulinoetan banatua ikusteko era bat, talde bakoitzak bere ezaugarri, eginkizun



Emakume bat, Irungo Alarde mistoari bizkar emanda. Aterkien azpitik ezkutatuta, haurrak daude, Alarde berdinezalea ikus ez dezaten. Egilea: James Bullen.

eta jardun-lekuak guztiz zehatzak dituela, hitz egiteko eratik maitatzeko moduraino. Familiak, eskolak, komunikabideek eta kontsumo gizartearen mezuek eredu hori erreproduzitzen dute, zeina neurri handi batean amodio erromantikoaren eta familia zorientsuaren idealaz hornitzen den. Eta horrek gizarte antolaketa asimetrikoa mantentzen laguntzen du, era horretara oraindik berdintasunarekin zerikusirik ez duten eredu tradizionaletan sozializatzen ditugularik neskak zein mutikoak. Batez ere, pertsona –sexua gorabehera– bakoitzaren ahalmena bultzatzearen eta harremanetan elkarrekiko errespetua eta elkarrizketa sustatzearen aurka dauden feminitate eta maskulinitate estereotipoak erreproduzitzen ditugu.

Indarkeriaren ikusezintasuna edo kezka sozial edo instituzionalaren mugetan kokatzea hilgarria da. Horren haritik, Teresa del Valle antropologoak (2010) adierazten du ezen, emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioak eta inplikazioak aitortuak ez izanik, ez zaio arazoari heldu behar den seriotasunarekin: "Oraindik ez da kontuan hartu gizarte baten garapenerako eragozgarri izan daitekeenik. Gure ingurunean oraindik ez dugu indarkeria politikoaren amaieraren begira gauden kezka maila berean jarri." Eta Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun emerituak ondokoa galdegiten du: "Emakumeen aurkako indarkeria, haren garrantzia, maiztasuna, metodoak, hedapena, ondorio pertsonal eta sozialak direla eta, indarkeriaren testuinguru globalean kokatu beharra dago, indarkeria politikoa kokaturik dagoen horretan bertan."

Hartarako, premisa honetatik abiatu gara: oraindik urrun gaude emakumeen aurkako indarkeria gizon eta emakume guzti-guztien arazo sozialtzat hartzetik; urrun, mendetan zehar erroturiko bereizkeria –emakumeak

menderatzea ez bada– arazotzat hartzetik; eta urrun, halaber, bereizkeria hori oraindik presente eta bizirik dagoela egiaztatetik, azken hamarkadetan gure herrialdean berdintasunaren alde lorturiko aurrerapenak gorabehera. Planteamendu hau guztiz ados dator genero sistemak gure ingurunea egituratzen duten beste sistema batzuekin –politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalekin– nola lotzen diren erakusteko. Antropologia soziokulturalaren ikuspegi holistikoarekin, zeinak gizarte fenomenoak ikuspegi zabal batetik kontuan hartzen dituen eta, ondorioz, genero indarkeriaren inguruneak gizarte osoa hartzen duela ulertzen duen, hala egitura alderdiak nola sinbolikoak. Hala, beraz, gizartean indarkeriak duen garrantzi handia kontuan hartu eta haren kausen konplexutasunean sakontzen duen helburua dugu.

Terminologia eztabaidan²

Artikulu honetarako, "genero" kontzeptua eraiketa soziokultural bat adierazteko erabiliko da; hau da, gizon eta emakumez zer ulertzen den eta horiengandik zer itxaroten den denbora eta leku jakin batean, pertsonak "emakume" eta "gizon" egiten dituen (Bullen eta Farapi, 2011: 7). Alardeetan geratzen den indarkeria ulertzeko, generoa bere sentidu zabalenean ulertu behar dugu, ez baita bakarrik "emakumeen aurkako indarkeria", nahiz eta bai "indarkeria sexista" bai "indarkeria matxista" terminoak egokiak izan daitezkeen, gizonen erantzukizuna eta

² Atal hau oinarrিতa dago Farapi Antropologia Aplikatuaren Aholkularitzarekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamenturako egin genuen ikerlanaren txostenean (2011).

gizarte eredu patriarkaletan indarkeriak dituen erroak agerian jartzearen.³ Hala ere, arazoa estrukturala dela erakutsi nahi dugu-lako, "genero indarkeria" terminoa hobesten dugu artikulu honetan.

Kontuan harturik genero kontzeptua funtsezkoa dela artikulu honen planteamendurako, garrantzitsua da argitzea "genero" kontzeptua eraiketa soziokultural bat adierazteko erabili egingo dela; hau da, gizon eta emakumez zer ulertzen den eta horiengandik zer itxaroten den denbora eta leku jakin batean, pertsonak "emakume" eta "gizon" egiten dituen. Gure analisia abiatzen da honako premisa honetatik: kontzeptu hori "genero sistema" osatzen duten egitura ekonomiko, politiko eta soziokulturalen arteko loturen bidez eraikitzen da, sistema horren balio, ezaugarri eta idealen konplexuarekin, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetan gauzatua, hala esparru publikoan nola pribatuan, lan harremanetan eta pertsonen arteko harremanetan, indarkeriaren bidez eskubideak urratzean eta pertsonaren osotasuna bortxatzean.

Kontzeptualizazio horren arabera, desberdintasun egoerak eta emakumeen eta gizonen arteko harreman asimetrikoek eragin-

dako indarkeriak oro izango lirateke "genero indarkeria", eta horrek barnean hartzen ditu hala gizonek emakumeen aurka gauzaturiko indarkeria, nola emakumeek emakumeen aurka egindakoa, pertsona homosexualen artekoa zein heterosexualen artekoa. Labur, emakume edo gizon izateak ardatza duen botere desberdintasunak sorturiko edozein indarkeria-adierazpeni legokioke. Hala, "genero indarkeria" terminoa erabiliko dugu genero sistemetan kokaturiko indarkeria-esparru zabala izendatzeko eta horien egitura-izaera aipatzeko.

Alardeetan gertatzen diren indarkeria motak hobeto analizatzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak 50. artikuluan emandako definizioari jarraituko dugu, Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen erreferentzia dokumentuaren arabera. Dokumentuak berak emakumeen aurkako indarkeria gertatzen den lau esparru nagusi identifikatzen ditu: familian edo etxe unitatean gertatzen dena; erkidego orokorrean gertatzen dena; estatuak gauzatu edo toleratzen duena; gatazka armatuen egoeran gertatzen diren emakumeen giza eskubideen urraketak.

Gure mugarriztatze terminologikoa osatzeko, Jarraipen Batzordeak etxeko tratu txarren artean zehaztu dituen lau motak aipatu behar ditugu, zeinak beste erakunde-dokumentuetan bildurik dauden (ikus Emakunde, 2009):

- a. Fisikoa. Biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetzen duen egin-tza da, ezbehar ez dena. Besteak beste, honako jokabideak barne sartzen ditu: bultzatzea, jotzea, erretzea, edota biktima erasotzeko armak edo beste tresnak erabiltzea.

³ "Genero-indarkeria" eta "emakumeen aurkako indarkeria" terminologia bereizi nahi dugu artikulu honetan. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak 50. artikuluan emandako definizioari jarraituz, gizonek emakumeen aurka gauzaturiko indarkeria mota bereziki aipatzerakoan, "emakumeen aurkako indarkeria" terminoa hobesten da. "Genero indarkeria"-ren erabilerari dagokionez, Erakundearen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak ondokoak dio: "Nahiago dugu "genero-indarkeria" terminoa baztertzea, horren helmena eta esanahia argi zehazten ez bada edo espresuki 1/2004 Lege Organikoari ez badagokio, [...], denek ez dutelako esanahi berarekin erabiltzen".

- b. Psikologikoa edo emozionala. Biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jarri edo kaltetzen duen egintza da, ezbehar ez dena. Besteak beste, honako hauek barne hartzen ditu: mehatxua, laidoa, iraina, gutxiespena, arbuio afektiboa eta elkarrekintza blokeatzea, isolatzea eta inkomunikazioa, eta abar.
- c. Sexuala. Biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu-praktikei deritze.
- d. Ekonomikoa. Diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatu egiten zaizkio tratu txarrak jasaten dituen pertsonari. Honakoak hartzen ditu barne: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak erabat kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeei esku-hartzea galarazi edo mugak jartzea, emakumeari lan egiten ez uztea edo janari-pentsioa ez ordaintzea.

Erakundeek egindako proposamenez gain, komenigarria da indarkeriaren analisiari antropologiaren esparrutik egindako ekarpenak kontuan hartzea indarkeria gizarte-ehunean erabat txertatua dagoela ulertzeko, edo Francisco Ferrandiz eta Carles Feixa (2004) antropologoek hitzetan: "Indarkeriak gizarte bizi-tzaren hainbat alderdi irazten ditu, horien dinamika baldintzatu edo mugatzen duela". Indarkeria, genero indarkeria barne, alderdi eta finkaleku asko dituen fenomeno da hainbat errealitate historiko eta sozialetan. Gure kasuari dagokionez, gaur egungo Bidasoaldeko gizarte testuinguruan kokatzen gara, nahiz jakin badakigun orainaldi hau aurreko garaiek moldaturik dagoela betiere.

Pertsonarteko indarkeria gizarte ikuspegitik aztertuz gero, fenomenoaz dugun ulermena zabaldu ahal dugu, indarkeria ez unean uneko ekintza gisa baina bai ekintza jarraitu gisa aztertzeko autore horiek egindako ahol-



2013ko Alarde egunean, Jaizkibel konpainiak protestak nahiz txaloak jasotzen ditu Hondarribiko Kale Nagusian gora. Egilea: Iñaki Ugarte.

kuari jarraiki, ez salbuespen gisa baizik eta normaltasun gisa, egunerokotasunaren osagai gisa. Emakumeen aurkako indarkeriari dago-kionez, genero sistemarekin loturiko oinarri-zko indarkeriatzat hartuz gero, egunerokoan oso presente dagoela ikusten dugu, eta era berean aitortu egiten dugu horren adierazpenetako batzuk puntualagoak izan daitezkeela.

Indarkeria prozesu ikuspegi honetatik kontuan harturik, Philippe Bourgois-ek lau indarkeria-mota bereizten ditu⁴. Egilearentzat, lau mota horiek ez dute elkar bazter-tzen; aitzitik, elkarrekin loturik daude:

- I. Indarkeria politikoa. Agintari ofizialek eta haien aurkakoez eragindako eraso fisiko eta izu-ikara motak hartzen ditu barne; hala nola, errepresio militarra, poliziaren tortura eta erresistentzia arma-tua, ideologia, mugimendu edo egoera politiko baten izenean gauzatua.
- II. Egiturazko indarkeria. Oinaze fisiko edota emozionaleko baldintzak ezartzen dituen gizartearen antolaketa ekonomiko-politikoari dagokio, erigarritasun indize altuetatik abusuzko eta egonkor-tasunik gabeko lan baldintzetaraino.
- III. Indarkeria sinbolikoa. Umilazio bar-neratuak eta desberdintasun eta hierar-kiaren legitimazioak dira, sexismo eta arrazakeriatik abiatuak klase boterearen barne adierazpenetaraino. “Ezagutzearen eta ez ezagutzearen bidez, ezagutzearen eta sentimenduaren bidez gauzatzen da, menderatuen onespren inkontzientear-ekin” (Bourdieu).
- IV. Eguneroko indarkeria. Eguneroko mikro-elkarreragin mailan gertatzen diren in-darkeriaren praktikak eta adierazpe-nak hartzen ditu barne: gizabanakoen

artekoa (pertsonartekoa), etxekoa eta delitugilea. Gizabanakoen esperientzia errepikatuak basakeria txikien normali-zazioa ekar dezake.

Horren proposamena Alardeetan gerta-tzen den genero indarkeriaren analisisira era-manetz gero, ikus dezakegu, esaterako, nola artikulatzen diren egiturazko indarkeria (instituzioen jarrera, legeen interpretazioa eta aplikazioa), sinbolikoa (gizonen nagusi-tasuna indartu eta legitimatzen duten ideiak eta estereotipoak) eta egunerokoa (berdin-tasunaren alde daudenen aurkako irain edo eraso jarraituen adibideak).

Alarde parekidearen aldekoen jarrera

Daten borobiltasunetik harago, esan beha-rra dago 2002an inflexio-puntu bat eman zela, epaiak zirela eta. Hortaz, 2003-2012, hamarkada bat baino, bukatu gabea diru-dien fase berri bat da, non, omen, “bi aldeek nahi dutena egiten duten”. Izan ere, epai-ek, ekimen baztertzailak baimendu dituzte. Ez dute ukatzen baztertzailak direnik; baina, “pribatuak” direlako eta udal ekimen bat gauzatzeko aukera dagoenez gero (nahiz eta epai haiek kaleratu orduko Udalek uko egin dioten udal alardeak antolatzeari), halatan “jaiaren ikuspegi biek” tokia izan dezaten. Alegia, epai-ek eta oro har diskurtso ofizialek ukatu egiten dute berdintasuna eskubide bat denik. Areago, emakumeak jaiaren ez subjek-tu, ezta objektu ere ez dira, nolakotasunezko zirkunstantziala baizik: jai-ak “ulertzeko era bat” baino ez direla ondorioztatzen da.

Kanpotarrei edo “bestelako” herriko etsaiei⁵ aplikatuz gero, epai berbera emango

⁴ In Ferrándiz eta Feixa (2004).

⁵ sic: “herriaren etsaiak” behar luke; baina hala ida-

zuketan epaileek? Indarkeria dela ukatu edo bigarren mailako arazotzat joko zuketan alderdi politikoek, oro har, komunikabideek? Erantzun erretorikoa, Irunen bertan gertatutako eskusio batek adierazten duen bezala. 2002ko martxoaren 31n, Radio Euskadiko "El Altavoz" programan, ETAK Orioko zinegotzi sozialista bat hil ondorengo orduetan, PP eta PSE-EEko kideek pairatu behar zituzten eraso eta mehatxuez ari zela, PPko buruzagi Borja Semper irundarrak adibide hauxe jarri zuen: Irungo auzo bateko jaietatik irainka, kolpeka eta bultzaka bota zutela; hau da, etsaigo politikoz norbait jai giroko espazio publikotik egozte Euskadin pairatzen zen fanatismoaren eta intolerantziaren adibidetzat zuen Semperrek; hilketa baten parean jarri gabe ere, indarkeria politikoaren baitan azaldu eta eraso larritzat salatzen zuen berari auzo bateko festetan gertatutakoa. Beraz, gauza bera Alardeetan gertatu balitzaio indarkeria politikotzat hartuko zatekeen gisa berean, berdintasunaren aurka aritzea genero-indarkeriatzat har al daiteke? Protagonista askok, eta, jakina, antagonistek berek, ukatu egiten dute. Artikulu honen egileek baietz uste dute.

Beharbada, berdinzaleen aurkako indarkeria "baretu" duen arrazoi nagusietariko bat "bi alardeen aukera" izan da, eta harekin batera denboraren poderioz publikoaren parte handi bat batzuen zein besteen presentziara ohitzea. Dena den, gatazkak sortutako giro mikaztuak bestelako ondorio latzak izan ditu. Berdintasunaren aldeko batek, behintzat, hala interpretatu zuen nahigabe handia eragin zuen ezbehar garratz bat.

tzia zegoen pankarta batean Hondarribiko Kale Nagusian, 2011n Berria egunkariak argazkian erakusten zuenez, eta 2012an Gara egunkariak dioenez, kasu bietan irailaren 8an bertan, argitalpen digitaletan.

2004an, Hondarribiko festak bukatu orduko, hamalau urteko mutiko batek bere buruaz beste egin zuen. Gertakari lazgarriak herri osoa astindu eta aztoratu zuen. Espainiako komunikabideetan eskola-jazarpenari buruzko eztabaidak bazterrak harrotu zituen. Irakaslea zelako ikastetxearen ardurak zurretzen ari zela argudiatuta ere, tradiziozale askok ere deitoratzen zuten indarkeria-espinal baten albo-ondorio gisa interpretatu zuen hari buruzko artikulu baten egileak: "han salido a la luz decenas de comentarios del suceso, sin plantear la pésima influencia que en la educación de los niños hondarribitarras tiene la situación que desde hace ocho años se vive en el pueblo, en relación con el Alarde [...]. Y el pueblo de Hondarribia se ha convertido, para sus hijos, en un modelo que atenta contra una educación basada en la tolerancia y en el respeto a los derechos de los demás" (Puente: 2004).

Oraingoz ezinezko da jakitea norainoko garrantzia izan zuen gertakariak Alardearen gatazkaren bilakabidean, gaia jorratzea oraindik oso-oso mingarria delako eta ofizialki harremanik ez duelako. Baina hurrengo urteetan "betikoen" arbuio-adierazpenak leundu ziren: Jaizkibel konpainiaren aurkako pankartak, plastiko edo aterki beltzak, baita kareta zuriak edo Disneyren pertsonaienak ere, ugaldtu ziren. Lehendabiziko urteetan berdinzaleen artean sentimendu kontrajarriak eragin zituzten: batetik, iraingarriak ziren; baina praktikan, erasotzaileek plastikoei eutsi behar zieten gero, ez zuten ibilbidea oztopatzen eta, aurpegia estalita, eraso ez zen pertsonalizatzen. Konpainiak errefusa sentitzen zuen, baina ez kide bakoitzak eraso zuzenik. Hortaz, "biktima sentsazioa" apaltzen da. Indarkeria fisikoa baino, indarkeria sinbolikoa da hau. Hori, bai, Jaizkibelen alde joandakoek txaloka eta bibaka



Txaloak eta irainak Alarde parekideko zalditeriako kantinerari, Irungo Kale Nagusian, 2012ko San Martzial egunean. Egilea: James Bullen

babesa adierazteko eskubidea urratua ikusten dute. Dena den, urteek aurrera joan ahala, irainak, konpainiaren musika eragozteko zaratak, eta azkenean pasabidea eragozteko saioak ere, berriro areagotu dira... arratsaldean, lekuko instituzional edo komunikabiderik ez dagoenean.

Irunen ere Kale Nagusian eta arratsaldean zentratzen dira erasoak. Hemen plastikorik ez dagoenez, erasoak zuzenagoak izan dira, bai Alardeko kideen aurka, bai ikusleen artean ere. Urteetik urtera apaldu arren, ez dira bukatu, eta batez ere mehatxua sentitzen da. “Kale Nagusia” arriskuaren esamolde bihurtu da Alardeetan. 2007an, teoriarik alarde bietako baina praktikan bakarreko kideen guraso batzuk (“bestean” erasorik ez da-

goenez gero, ez du zentzurik haien gurasoen kezka) alkatearekin bildu ziren. Guraso horiek, <<http://www.alardean.org>> webean tolerantziaren aldeko dei orokorra egiteaz gain, lortu zuten “Betikoen” taberna, eraso askoren iturria, itxia egon zedin Alarde parekidearen pasabidean, eta Kale Nagusian ertzainen presentzia areagotzea. Izan ere, 2012an, Irun eta Hondarrribiko alarde berdinak dira eskolta poliziala behar duten Euskadiko ekimen bakarrak.

Antolatzaileen aldetik ere, “espazio eta denbora sakratutik” al bait gutxien kanporatuak izateko borrokan, eta “diskurtso ofizialean” mezu itxaropentsuak emanatik, kontzesio asko egin da, “piztia esna ez dadin”, etengabeko mehatxua bete ez dadin.

Aurreko urteetako eskarmentuak ederki erakusten zuen zenbat eta gaiztotuago giroa, orduan eta jende gutxiagok parte hartzen zuela konpainia parekideetan. Horregatik ere uko egiten zaio Berdintasun Legearen 25. artikulua (“Debekatu egiten da emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan”) bete dadila eskatzeari. Egon dagoen mehatxuaren azken adibidea: 2012ko ekainaren 20an Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzarekin egindako bilera batean, “giroa ez berotzeko”, espresuki eskatu zitzaion ez zezala atera, behintzat sanmartzialak bukatu arte, Alardeko danborrari emakumezko baten irudia berdintasunik oraindik ez dagoela iradokitzeko. Asko eztabaida liteke jarrera hau egokiena den ala ez; baina emaitzak erakutsi du mehatxuak iraun dirauela: Kartela plazaratu orduko, honako hau idatzi zuen Luis Bauzak facebooken uztailaren 6an (irain sexualez gain): “Que no se pasen, que si no un día puede pasar cualquier cosa”. Eta irailean Hondarribian erasoak areagotu dira.

Baztertzailen jarrera

Nola edo hala, txanpon bakarraren beste alderdiaren modura, baztertzailen jarrera ere agertu da: indarkeria, edo haren mehatxua, beti baztertzailen aldetik dator. Bitxia bada ere, ez da inolako gatazkarik agertzen komunikabideetan tradizional deitutako alardeak aipatzerakoan (baztertzailak beren alardea ere hala deitzen dute, nahiz eta duela hamarkada bat sortutako ekimen pribatua izan, eta ez ehunka urteko tradizioa, udal alardea; bestela, “herriaren alardea” ere deitzen dute, eta “herri osoa” partaide

dela azpimarratu: ikus, adibidez, <<http://hondarribikoalardea.com>> eta <<http://www.alardedeirun.com>>). Emakumeen berdintasunezko aldarrikapenak haiekin zerikusirik batere ez balu bezala. Eta nolabait, hala da... edo hala behar luke, zeren eta “borroka”, juridikoa, politikoa, soziala, berez, berdinezaleen eta instituzioen artean izan baita gehienbat. Berdintasunaren aldeko aldarrikapen instituzionalak eman direnean ere, Irun eta Hondarribiko Udalei egin zaie dei, ekimen pribaturik ez balego bezala.

Alabaina, “betikoen” pertzepzioa biktimista da, Interneteko foroetan batik bat: “viven del cuento chino de ser las víctimas cuando en realidad son el verdugo (Josu10/06/2005 22:17 host: 85.86.7.138 País del Bidasoa). Edo Irungo Manuel Millan Ezker Batuko zinegotziak baztertzailen tabernak ordenantza errespetatzen ez zuela (komunak, ordutegiak) salatu zuelako, halakoak irakurri behar izan zuen: “gracias sr.millan, es usted un eficaz perro de la gestapo” (ITV6 10/06/2005 22:22 fecha host: 85.86.7.138 País de Irun).

“Me preocupan y mucho las declaraciones del defensor del pueblo (Arartekoaz ari da, kritika baino gehiago, irain askoren jomuga) el problema de este personaje es que quiso ser cantinera no pudo salir por condiciones obvias y xq no hay manera de ponerle un moño. Ya está bien!!! que nos dejen en paz!!!!!!” (Aldabemendi 18/04/2005 10:17 Host: 85.86.11.90). Eta abar, eta abar, eta abar.

Nork utzi behar du bakean nor? Zilegi begigu artikulua honen egileoi zuzenean 2007an gertatutakoa. Antzuolako Mairuaren Alardeari buruzko ikerlana prestatzen ari

⁶ ITV sinatzailea: Irunen ITV = “de Irun de Toda la Vida”, eta Millan malagarra da jaiotzez.

ginela, herri hartan euskal alardeen bilkura bat antolatu zelarik, geu izan ginen, begien bistako arrazoiengatik, Antzuolako Udalarri Bidasoaldeko “betikoen” fundazioen helbi-deak helarazi genizkienak (bide batez esanda, epaien oniritzia omen duen ekimenaren erakunde antolatzaileak, Hondarribiko Alarde Fundazioak, Nafarroako Beran, industrialde batean, du egoitza ofiziala, haren helburuak legearekin bat ez zetozela-eta Eusko Jaurlaritzak fundazio gisa erroldatzerik galarazita). Haien erreakzioa esanguratsua izan zen, oso: “besteak” ere gonbidatuta ote zeuden galdetu, eta Udaletik baietz esandakoan, presioa egin zuten, “berdinzaleei” gonbidapena erretiratzeko. Ez zuten aski ez joatearekin: joan nahi zuten, baina “besteak joatea” ez. Hain zen egoera deserosoa Udalarentzat, eskatu ere egin zigun ekitaldi berberetan ez egotea. Jakina, halakorik ezin onartu: etxean ez ezik, kanpoan ere betikoen agindu non bai eta non ez genuen egoterik. Azkenean Irungo betikoen parte hartu zuten (Hondarribikoen, ez), eta herrikideentzat ez beste partaide guztientzat liburuak eta bideoak opari eraman. Jakina, haien azalpenetan, emakumeen aipamenik ez, kantinez gain. Bitxia, gero, gaia emakumeen partaidetza ez bazen ere, gainerako partaideek, besteak beste, bai kontatu zutelako noiz eta nola hasiak ziren emakumeak parte hartzen!

Anekdotikoa lirudike esanguratsua izan ez balitz. Gainerako instituzioekin ere, Eliza dela edo Euskomedia dela (alardeei buruzko artikuluetan), familia giroko indarkerian bezala, ahulenari eskatzen zaio amore eman dezala. Nolabait laburtzeagatik, “bai, arrazoiak zuek duzue; baina besteak ez haserretzeko, leun itzazue zeuen jarrera edo hizkera”. Edo, besterik gabe, “indarkeria bi aldeetako delako” diskurtsoa, “neutral” agertzeko aukera ematen duena.

Honek instituzioen zereginaz gindermatzake. Baina badago aipatu beharreko gertakari garrantzitsu bat: 2011n, Irungo Kale Nagusian aurreko urteetan baino eraso larriagoa gertatu zen, hain zuzen Hondarribiko gizon batek Irungo emakume bati ileetatik tira eta lurrera bota zuen. Egia esan, biharamuneko Diario Vascon agertu ez balitz (“forcejeos”, argazki-oinak zioenez) behar bada ez zen gertaera zabalduko. Baina hori ere ez da nobedadea: berritasuna da bere burua tradiziozale duen zinegotzi batek kondenatu egin zuela eraso, dudarik ez baitzuen egin zeinek zeini egin zion eraso, eta askoz ere inportanteagoa, betikoen agintariei (“bere aldekoiei”) dei egiten zien, ez zituen errudun egiten, baina ardura leporatzen zien: “No hay derecho a que por querer ver la manifestación –betikoen ezin dute Alarde hitzaz ekimen berdinzalea deitu, eta haren figura juridikoa, bide batez esanda beraiek ere zenbait urtez erabilia, aipatzen dute– del día 30 hayan tenido que sufrir semejante agresión. Espero sinceramente que desde todas las instancias relacionadas con el Alarde Tradicional se tomen cartas en el asunto para que incidentes de este tipo no se vuelvan a producir y se pida disculpas públicamente a las personas afectadas”. Eta DVko argazkiari, oin modura, gehitzen zion: “Así no se defiende al Alarde Tradicional. Basta ya de violencia contra las mujeres” (Gayoso: 2011). Diskurtso feminista batetik “tradizional” delakoak emakumeen aurkako indarkeria bere baitan daramala defendi daitekeen arren, eta artikulua hau bera da jarrera horren adibide, aurrerapauso galanta da alarde baztertzailaren aldeko batengandik. Jakina, “bereak” ez zioten, publikoki behintzat, erantzun; baina indarkeriaren agerpen deigarrienak eta mingarrienak arbuiatuta, indarkeria estrukturala arraitzeko bidea zabaltzen da, edo zabal



Neska gazteak bueltatu dira Alarde parekidea ez ikusteko, 2012ko Irungo Alardean. Egilea: James Bullen.

daiteke, instituzioek ere bide bera jorratzen badute.

Bide batez, indarkeria mota honen ezau-garri bat argi eta garbi uzten du: indarkeria ikusleek ere eragiten dute, eta hitzez eta keinu bidezkoa gehienbat emakumeek, haien artean neska gazte askok. Besterik ez balitz ere, indarkeriaren alderdirik ikusgarrien eta mingarriena neska gazteengan topatzeak gogoeta sakonak eta funtsa handiko kezak sorrarazteko gai izan behar luke, besteak beste, oraingo hezkuntza sistemak beste laguntzarik gabe errealitatea aldatzeko ezintasunari buruz.

Halakoetan eraso fisikoa baino, umilazioa bilatzen delako, “bestearekiko” mespretxua. Emaitza da alarde parekideak nola edo hala “problematiko” agertzen direla. Ekimen baztertzailea, berriz, problema guztien itu-

ria (baztertzailea ez balitz, pribatua izanda ere, ez legoke gatazkarik) salbu agertzen da, jaiari, pozari, txukun, kolorez eta soinu alaitutako koreografiari loturik, “arazoak haiekin zerikusirik ez balu bezala”.

Instituzioen jarrera

Aurreko guztia ulertzeko, instituzioen jarrera da aztertu beharreko hirugarren atala. Euskal Herrian instituzio asko eta denetarikoa daude, eta haien jarrerak nekez bateratu eta bildu daitezke. Udalena etengabe berdintasunaren aurkako beligerantzia izanda, urteen poderioz apaldu ez baina areagotua: 2003ko maiatzean, Santano Irungo alkateak aurreko udal hauteskundeetan aldean

bi mila boto gehiago eskuratu izana alardearekiko jarrerari esker zela zioen (Moreno, 2005: 179). Ararteko eta Emakunderen aldetik, babesa. Foru Aldunditik ere bai, batez ere ekonomikoa: 2012an sinatu da aurreko urteetako diru-laguntzak egonkortu eta hobetu dituen hitzarmena. Hori bai, jarrera horiek egon indarrean dagoen legedia be-tearazteko asmorik edo ahalmenik ez dutela agertzen dute, hitzez ez bada egitez (edo egite ezaz, hobeto esanda).

Indarkeriaren adierazpenei buruz ari gara, eta espazioak eta denborak banatzeko ardura hari dagokiolako, Herrizaingo Sailak protagonismo gehiena izan du. Azken hamarkadan, oro har, “ordena publikoaren” izenean eta “neutral” jokatzan ari delakoan “tradizionalisten alde” egin izan du, baina ez era esplizituan. Izan ere, publikoki tira-birak “betikoekin” ez baina berdinzaaleekin izaten dituzte, zeren eta, zerbait aldatzekotan, beti aldarazten baitituzte berdinzaileen baldintzak, betikoena beren horretan utzita. 2011n, Hondarribiko Jaizkibel konpainiaren ibilaldia aldarazi zuen, berdinzaaleek eskatzen ez zuten ustezko segurtasuna bermatzearren eta praktikan haiek espazio sinbolikoaren erdigunean ikusezin bihurtzearen. Apirilaren 24an, Emakunde sariaren entregan, Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzaren bozeramaleak Alarde parekideen alde erabateko babesa agertu arren (Emakunde Sariak daudenez geroztik lehendakariak lehen aldiz huts egin zuen entrega-jaialdira), 2012ko irailean Herrizaingo Sailburua zelarik, nahiz eta iazko aldaketa epai batek arbitrarioa zela aitortu, behin baino, eta oztupoekin, ez du utzi Jaizkibel konpainiak San Pedro kalean (Hondarribiko erdigunea, alde historikoko Kale Nagusia bera baino areago) entseguak egin zitzaizkien. Baztertzaileen espazioak, aldiz, ez dira inoiz kuestionatu azken hamarkadan,

gehienez ere denborak, Alarde parekideekin espazioa bateratzearen.

Alarde Bidasoaldetik kanpoko erakundeak kutsatzen dituela erakusgarri, azken adibidea: Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Bilduko Lohitzune Txarola irundarrak, 2012ko ekainaren 6ko Batzarretan Alarde parekideen aldeko mozioa aurkeztu zuen. Aralarrek beste inork ez zuen lagundu. Geroko saio informalean, berdinzaale batzuek Maite Cruzado PSE-EEko juntero eta Irungo Gizarte Gaietako (berdintasuna barne) zinegotziari Kale Nagusiko erasoak behingoz eteteko lan egin zezala eskatuta, honela azaldu zien beste junteroei: “es que es una calle muy estrecha”. Alegia, bere egiten zuen hasieran aipatutako “jaiaren ikuspegi bien diskurtsoa”, non berdintasunaren alde nahiz kontra jardutea, bi-biak diren zilegi... teoriar hori ere, zeren eta praktikan baztertzaileena baino ez baitu txalotzen, eta erasoak kondenatu beharrean bi bandoen arteko liskarrak direlako irudia ematen baitu Irundik kanpo. Jakina, halako diskurtsoak ez du bereizten indarkeria estrukturala (berdintasunaren ukazioak berezko duena) eta indarkeriaren adierazpen puntualak, baina ezta alderdi batekoek (alderdi horretako zenbaitzuk, dena esatera) bestekoen aurkako erasoak aitortzen ere, eta alde bietako bortitzek eragindakotzat iradokitzen ditu. Batzar haietarako PSE-EEko bozeramale Rafaela Romerok, maiatzaren 16an aurkeztutako 09/c/34/1040 espedienteko 2273 zenbakidun zuzenketan, besteak beste, hala zioen 5. puntuan: Batzarrek dei egin behar zietela erakunde guztiei “a garantizar el derecho de todas las personas –hombres y mujeres– a participar y disfrutar en igualdad de las fiestas populares”. Bozkatu, ordea, hauxe bozkatu zuten sozialistek, besteak beste: “erabateko errespetua eta babesa adierazten diete

alardea sentitu eta bizitzeko espresio modu ezberdinei". Alegia, bazterkeriari ere erabateko errespetua eta babes. Gerora, hala zuri-tu zuen Romerok erabateko jarrera-aldaketa: "no he podido... no me han dejado".

Esan du, bai, berriro ere, Maria Silvestre Emakundeko zuzendariak 2012ko irailaren 8an Hondarribian, jarrera bortitzak salatzaz gain: berdintasunak oso luze joko duela Alardeetan. Udalen jarrera salatu ere bai. Alabaina, beharbada Udalena ez ezik beste erakundeena ere aipatu behar luke, baita aztertu ere alderdien barruan genero-harremanak indarkeriazkoak ez ote diren. Izan ere, Alardeena, berezko arazo gisa baino, desberdinkeria eta genero-indarkeria estruktural handi baten sintoma eta era berean eragile gisa aztertzeak gogoeta mamitsuak ekar litzake, honelako artikuluko batean iradoki baino egin ezin direnak.

Bitartean, gatazkaren oraingo diagnostikoa laburbiltzerakoan, honako hau aurrera

liteke: beldurrik gabeko eszenario batean gauzak oso azkar alda litezke, gehienetan berdintasunaren alde. Horregatik, baztertzailak ederki dakite mehatxua dutela baliabide nagusi, eta arma gisa darabilte, bereziki udal instituzioen laguntzaz, baina baita zenbait alderdi politikoren babesaz ere.

Goian aipatutako parametroetan aldaketa esanguratsurik ematen ez den bitartean, berdintasunak nekez egingo du aurrera Bidasoaldeko Alardeetan. Zeren eta oraindik urrun baikaude emakumeen aurkako indarkeria gizon eta emakume guzti-guztien arazo sozialtzat hartzetik; urrun, mendetan zehar erroturiko bereizkeria –eta emakumeak menderatzea– arazotzat hartzetik; eta urrun, halaber, bereizkeria hori oraindik presente eta bizirik dagoela egiaztatzetik, azken hamarkadetan gure herrialdean berdintasunaren alde lorturiko aurrerapenak gora behera.

Bibliografia

- BULLEN, Margaret eta DIEZ, Carmen (2002) “Violencia y cambio de culturas androcéntricas”, in *IX Congreso de Antropología de la Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español*, Barcelona [CD formatuan].
- BULLEN, Margaret eta EGIDO, José Antonio (2003) *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Hondarribia y Irun*, Bilbao, Servicio Editorial de la UPV-EHU.
- BULLEN, Margaret eta HERNÁNDEZ, Jone Miren (2011) *Antropología feminista* [EHUko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren argitaratu gabeko testua].
- BULLEN, Margaret eta FARAPI ANTROPOLOGIA APLIKATUAREN AHOLKULARITZA (2011) *Emakumeen aurkako indarkeria Gipuzkoan eta hura eragiten dutenak*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamendua.
- CONNELL, R.W. (1987) *Gender and Power. Society, the Person and Sexual Politics*. Cambridge, Polity Press.
- DEL VALLE, Teresa (dir.) (2002) *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*, Madrid, Narcea.
- EMAKUNDE (2009) *Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria Jasaten Dituzten Emakumeei Harrera Hobe Egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa*, Gasteiz, Emakunde.
- FERRÁNDIZ, Francisco eta FEIXA, Carles (2004) “Una mirada antropológica sobre las violencias”, in *Alteridades*, 14 (27): 159-174.
- GAYOSO ARTETXE, Ana (2011) *Carta abierta a la Junta del Alarde Tradicional* [uztailaren 8koa, Internet bidez zabaldua].
- LOIDI BIZCARRONDO, José Antonio (1997) “Alarde de San Marcial. Participación de Mujeres”, *Luis de Uranzu Kultur Taldea*, 15.
- PUENTE, Luis (2004) “La cruz de la moneda”, *Gara*, azaroaren 6an.
- MORENO, Gorka (2005) “Bidasoako alardeak: gatazka baten kudeaketa politiko okerra eta maltzurra”, in G. MORENO eta X. KEREXETA (koord.), *Bidasoaldeko Alardeak: herria versus hiria*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

Palabras clave: violencia de género, Alardes, sistemas de género, fiestas, comarca del Bidasoa.

Resumen: Los Alardes de Irun (30 de junio) y Hondarribia (8 de septiembre) siguen siendo causa de conflicto a favor o en contra de participación igualitaria de mujeres y hombres. En 2002, con la institucionalización de un acto paritario y otro discriminatorio, la situación se estabiliza y la violencia contra la opción igualitarista es menor. Se incumple la Ley de Igualdad de 2005, que prohíbe actividades discriminatorias. Los Ayuntamientos, y en gran medida Interior protegen a la opción excluyente. Los Alardes paritarios, bajo una constante amenaza, no reciben ningún apoyo municipal y poco, y condicionado, de Interior. Este artículo arguye que los Alardes, y la oposición a la igualdad en la ocupación del espacio público, son síntoma de una violencia generalizada, fruto de las relaciones de género asimétricas que perviven en nuestra sociedad.

Keywords: gender violence, Alardes (parades), gender systems, festivals, Bidasoa region.

Abstract: The Alardes of Irun (San Marcial, June 30th) and Hondarribia (Virgin of Guadalupe, September 8th) continue to hit the news on account of a conflict which arises from the confrontation between positions for and against the equal participation of women and men in the parades. Since 2002 there have an egalitarian and a discriminatory parade in each town. With their institutionalization, the conflict has stabilized and the violent attacks on those defending equality have become fewer and less virulent. Despite the Law of Equality (2005) forbidding the organization of discriminatory events, the discriminatory parade receives the permission and protection of the local council and the police, whilst the egalitarian Alarde receives no council support, insufficient police protection and is subject to violence or the constant threat of it. This article reviews the violence in the Alardes in the last decade and argues that it is a symptom of a the asymmetric gender system which prevails in society.